

BILBOKO ASTE NAGUSIA XAKE AZKARREKO XX. TXAPELKETA

12 minutuko partidak gehi 3 segundo jokaldiko, 9 txandekin. Zuri Baltza Xake Taldea eta Bilboko Konpartsak izan ziren antolatzaileak.

AZKENEKO SAILKAPENA

- 1) **Luis David Jimenez Almeida (Nafarroa, Euskal Herria) (2.232) – 8 puntu.**
- 2) **Iñigo Argandoña Riveiro (Gipuzkoa, Euskal Herria) (2.429) – 7'5 puntu.**
- 3) **Paulo Alberdi Sololuce (Bizkaia, Euskal Herria) (2.242) – 7'5 puntu.**
- 4) Johnny Fernando Sadusea (Venezuela, Bilboko Conteneoko jokalaria) (2.150) – 7 puntu.
- 5) Unai Garbisu De Goñi (Nafarroa, Euskal Herria) (2.442) – 7 puntu.
- 6) Jon Angulo Martinez (Bizkaia, Euskal Herria) (2.186) – 7 puntu.
- 7) Ibon Barrio Ugidos (Bizkaia, Euskal Herria) (2.066) – 7 puntu.
- 8) Ibon Martin Etxeandia (Bizkaia, Euskal Herria) (2.144) – 7 puntu.
- 9) Carlos Varas Gonzalez (Txile, Bilboko Conteneoko jokalaria) (2.227) – 7 puntu.

Orotara, 162 jokalaria.

ASTE NAGUSIKO EZ OHIKO IRUDIAN, NAFARROAKO JOKALARI BAT PODIUMEKO KOSKARIK GORENEAN



Luis David Jimenez Almeida, garailea.

2019an 23 urte bete ditu Luis David Jimenez Almeidak, edo beteko ditu. Iruñeko Donibane Kirol Elkartean jokatzen du. Oso jokalaria lehiakorra da, sen irabazlearekin. 2.232ko eloa dauka baina ez da beldurtzen xakeko maisuen aurrean. Askotan gainditu ditu sailkapenean.

Seigarren zerrendaburua zen, baina torneoa irabaztea lortu zuen. Unai Garbisu De Goñi eta Mikel Ortega Lopez Orvinako jokalaria lehengo eta laugarren zerrendaburuak ziren baina atzean utzi zituen.

Erik Juez Villar zarauztarraren aurka galdu zuen hirugarren txandan, baina ez zitzaion gaizki etorri. Atzetik aurrera joan zen gero, jokalaririk onenak saihestuta. Azken aurreko txandan Iñigo Argandoña Riveiro bigarren zerrendaburuarekin egin zuen topo. Jokalari gipuzkoarra gaudituz, lau garaipeneko boladari beste bat gehituta. Ibon Martin Etxeandia abadiñoarra izan zen azken oztopoa, baina ordurako ez zegoen Luis David Jimenez Almeidari galgarik jarriko zionik. Bederatzi partidatan 8 puntu eta buruan bakarrik bukatu zuen.

2006tik hartutako datuetan ez da ageri beste jokalaria nafarrik irabazleen artean.

Nafarroako beste jokalaria batzuk ere aritu ziren torneoan. Halaxe geratu ziren haietako batzuk: Unai Garbisu De Goñi, bosgarren, 7 puntuz; Gustavo Jimenez Martin, hamaseigarren, 6'5 puntuz; Mikel Ochoa Aldaz, hogeita zortzigarren, 6 puntuz; Mikel Ortega Lopez, hogeita hamahirugarren, 5'5 puntuz; Javier Sevilla Subiza, hogeita hamaseigarren, 5'5 puntuz.

Informazioa:
<http://chess-results.com/tnr465208.aspx?lan=1&art=1&rd=9> webgunea.

<http://chess-results.com/tnr465208.aspx?lan=1&art=1&rd=9>

2019-08-24.

Iturria: Internet.